



Lurralde Estrategia euskararentzat

[Iurgune euskaldunena sendotu,
euskararen indarberritzea hauspotzeko]



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



UEMA

www.uema.eus

koordinazioa@uema.eus

t.me/UEMAeus



(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons
Aitortu-PartekatuBerdin 4.0
Nazioartekoa lizentziapean
zabaltzen da.

Lehen argitaraldia:

Argitaratzailea:

Azala eta maketazioa:

2026ko otsaila.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea.

UEMA.

AURKIBIDEA

1. ATARIKOA	4
2. ARNASGUNEAK, UDALERRI EUSKALDUNAK, LURGUNE EUSKALDUNA	6
• Arnasguneak	
• Udalerrri euskaldunak	
• Lurgune euskalduna	
3. ZERGATIK ESKU HARTU LURGUNE EUSKALDUNEAN	9
4. OINARRIZKO ESTRATEGIA: BOST IRIZPIDE, MAPA BAT, HIRU NORABIDE	11
• Lurraldean jarduteko bost irizpide orokor	
• Mapa bat indarberritzean aurreratzeko	
• Eragiteko hiru norabide orokor	
5. LURGUNE EUSKALDUNERAKO LEGE BABESA ETA PLAN INTEGRALA	15
6. PROPOSAMEN IREKI BAT BIDEA EGITEKO	16

1. Atarikoa

Arnasguneek hizkuntza gutxituen biziberritzean duten garrantzia askotan izan da hizpide Mikel Zalbidek kontzeptua bera euskarara ekarri zuenetik. Lehenago, UEMA sortu zutenek ere lurgune euskaldunak euskarak bizirik irauteko duen garrantziaz ohartuta ekin zioten mankomunitatearen ibilbideari. Harrezkero urte askoan egindako lanaren ondotik, gaur egun adostasun handia dago arnasguneek indarberritze prozesuan duten garrantziaren inguruan, bai euskalgintza sozialean, bai akademian eta bai euskararen alde ari diren erakunde publikoetan. Horren erakusle da 2024an Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta UEMAk adostutako *Euskararen arnasguneak: definizioaren eta erronken berrikuspena* dokumentua. Lerro hauetan aurkezten dugun proposamenak dokumentu horren espiritua du abiaburu, eta bertan aipatzen diren erronkei erantzuten hastea du helburu.

Kezkatzekoak dira euskara indartsuen dagoen lurgunean antzematen diren joerak. Ez da oraingo kontua udalerririk euskaldunenetan adierazle soziolinguistiko nagusiak atzeraka hasi izana, baina urteek aurrera egin ahala egoera kezkagarri batera iritsi gara, zinez. Adierazle nagusietan atzera egiteaz gain, gune horietako hiztunen tipologia ere asko aldatu da. Azken batean, nazioarteko joera orokorrekin bat, bizi ereduaren bilakaerak, bilakaera demografikoak eta globalizazioaren ondorio zuzenek arnasguneak desagertzeko bidean jarri dituzte.

Horri aurre egingo dion erantzun sendo bat mamitu nahiak bultzatu gaitu proposamen hau idaztera. UEMAk, 120 udalerri euskaldun biltzen dituen erakunde publikoa den heinean, dagokion arduratik eta eremu euskaldunena gure hizkuntzarentzat giltzarria dela jakinda, euskara indarberritzeko oinarrizko lurralde estrategia proposatu nahi dio euskal jendarteari. Lurgune euskaldunean eragiteko eta lurgune euskalduna sendotzeko estrategia da, beti ere horrek gero euskararen lurralde guztian eragingo duela jakinda. Euskararen lurralde osoarentzako estrategia da, beraz. Badakigu euskararen lurralde osoa eremu administratibo ezberdinetan zatituta dagoela, eta bakoitzak bere bidea egin beharko duela, proposamen honetan bildutakoak adosteko eta bideratzeko, dagokion errealitatera eta erritmora egokituta. Horregatik, ez da proposamen itxia, abiapuntua baizik, asko baitira zehatzu, eztabaidatu eta adostu beharreko kontuak.

Proposamen hau Euskal Herriko erakunde publiko, alderdi politiko, sindikatu eta gizarte eragileekin partekatu, eztabaidatu eta osatu nahi du UEMAK. Euskararen alde lanean ari diren erakundeekin eta eragileekin proposamen honen inguruan hitz egitea eta oinarrizko adostasunetara heltzea da asmoa. Ondoren, adostasun horretatik abiatuta, lurgune euskaldunerako plan integral bat lantzea da UEMArekin nahia, beti ere askotariko alorretan lanean ari diren eragileekin lankidetzan.

Lan handia egin da euskararen biziberritzean azken hamarkada hauetan. Hala ere, hizkuntza gutxitua da oraindik euskara eta, gaur egungo joera soziolinguistikoak irauli ezean, geldialdi zantziek galera aroari bide emango diotela diote ikerketek. Bilakaera demografikoak, mundu mailako aldaketek, teknologiak zein bizi-ohitura berriek ez dute etorkizun samurra iragartzen gurea bezalako hizkuntza gutxituentzat. Sendo eragin beharra dago euskarak atzera egitea nahi ez badugu. Horretarako ezinbestekoa da estrategietan asmatzea eta politika egokiak bideratzea. Norabide horretan egindako ekarpena da lurralde estrategia hau, hizkuntza politika berriekin lurgune euskalduna sendotzeko eta horrekin indarberritze prozesuari bultzada emateko asmotik abiatuta.

2. Arnasguneak, udalerri euskaldunak eta lurgune euskalduna.

Elkarrekin zerikusi estua duten baina sinonimoak ez diren hiru termino horiek erabili ohi dira euskarak lurraldean duen askotariko errealitateaz aritzekoan. Orrialde hauetan, zehazki, lurgune euskaldunaz hitz egingo dugu. Beraz, garrantzitsua da termino bakoitzak zer adierazten duen argitzea ezer baino lehen.

Arnasguneak

Aski hedatu den ideia da arnasguneek berebiziko garrantzia dutela euskararen normalizazio prozesuan. Hona hemen arestian aipatutako “Euskararen arnasguneak: definizioaren eta erronken berrikuspena” dokumentuan zehazten den definizioa eta egiten den kokapena, bete betean gure egiten duguna:

“Eguneroko mintzajardun arruntetan bertakoen artean euskara nagusitzen den gune soziogeografikoak (auzoa, herria, herrixka, eskualdea, harana...) dira arnasguneak, zeinetan herritarrek beren egunerokoan, gunean bertan dituzten komunikazio harremanak (oinarrizko beharrei lotuak, familiakoak, lagun artekoak, sozialak, administratiboak, eskola girokoak, ekonomikoak...) nagusiki euskaraz garatzen dituzten. Bertako hiztunen hizkuntza-gaitasunari erreparatuta, gehienek euskara dute errazen/ongien erabiltzen dakiten hizkuntza.

Arnasguneetan euskara belaunez belaun transmititzen ohi da familia gehienetan (gurasoen eta haurren artean); eta euskaraz mintzatzeko arau sozialak du indarra bertakoen arteko gizarte harreman ohikoenetan (helduen artean, haurren artean...). Ondorioz, euskararen eta euskal kulturaren nolabaiteko transmisio soziala edo komunitarioa gertatzen da, hau da: hizkuntzaren transmisioa gizarte bizitzak bermatzen du belaun arteko eta belaun barneko elkarrekintzetan. Horren guztiaren ondorioz, gizarte integrazioa euskara ikasi eta erabiltzearekin harreman estuan dago. Eta horrekin batera, erabilerazko hizkuntza-bilakaera prozesuetan indartsuagoa da jatorriz euskara ez zekitenen euskalduntzea, jatorriz euskaldunak diren hiztunen erdalduntzea baino. Arnasguneetan, testuinguruak modu naturalean laguntzen du hiztunen gaitasuna sendotzen eta erabilerara areagotzen. Hala ere, badaude jatorriz arnasguneetakoak direnak, baina euskaraz ez dakiten hiztunak.

Arnasguneen artean, halere, aldeak daude, neurriz eta izaeraz gain (batzuk nekazalgoko herri koskorak dira eta beste batzuk hirigune nahiko urbanizatuak), euskararen bizitasun soziolinguistikoko zenbait adierazle ere (euskararen etxeko erabilera, familia bidezko transmisioa...). Dena dela, guztiak dira euskararen biziberritze prozesuan giltzarri. Ez horiek bakarrik, ordea. Nagusitasun eremuen errealtatea kontinuum moduko bat da, eta kontinuum horretako eremu euskaldunenei deitzen diegu arnasgune.”

Udalerriak arnasgune diren edo ez erabakitzeke orduan, UEMAk honako irizpidea landu ohi du: arnasgunetzat jotzen dira hurbileko erabileran euskarak %60ko pisua gainditzen duten udalerriak¹. Arnasgune bete izendatzen dira pisu hori %80koa edo handiagoa denean eta arnasgune erasan erabilera %60-%80 tartean kokatzen denean.

Azken hamarkadetan, arnasguneak erdalduntzen ari dira, eta ondorioz gero eta arnasgune gutxiago ditugu. Hirurogeigarren hamarkadatik asko aurreratu dugu indarberitze ahaleginean: ezagutzen, alor formaletako erabileran eta hainbat esparru funtzionaltan. Ez dugu aurreratu, ordea, euskara nagusi izango zuen lurralde eremua sendotzen. Alderdi hori ez da lehentasunen artean egon, eta sendotu beharrean, arnasguneak ahultzen ari dira. Gainera, proiektioek eta ikerketek are ondorio ilunagoa aurreikusten diete eremu hauei; gaur egungo egoerak bere horretan iraunez gero, ez da arnasgunerik izango laster batean, arnasguneek galdu egingo baitute izaera hori.

Udalerri euskaldunak

Udalerri euskaldun deitzen diegu, UEMAko kide izateko baldintzak betetzen dituzten udalerriei. Horretarako, herritarren ezagutzari erreparatzen zaio. Gaur egun, zehazki, langa euskararen indizeak² %70a gainditzean dago. Hots, euskararen indizean balio hori gainditzen duten udalerriak izendatzen ditugu udalerri euskaldun.

Lurgune euskalduna

UEMAk bere sorreratik erabili izan du “lurgune euskalduna” terminoa, gehienetan udalerri euskaldunen eremuari buruz aritzeko. Dokumentu honetan, ordea, adiera zabalagoa eta oraingoz zehaztu gabekoagoa emango diogu terminoari. Lurgune euskaldunak arnasgune guztiak bilduko lituzke, eta baita udalerri euskaldun guztiak ere. Baliteke, ordea, horiez gain, beste udalerri batzuk ere barnebiltzea lurgune euskaldunak. Lurgune hori zehaztea, zein eskualde eta udalerrik osatzen duten, alegia, orain hasten dugun prozesuan landu eta adostu beharreko alderdi garrantzitsuetako

¹ Hurbileko erabilera-tasa, etxeko erabileraren eta kalekoaren batezbestekoarekin kalkulatu dugu.

² Euskararen indizea udalerriko euskaldunen %ari ia euskaldunen %aren erdiak gehituta.

bat izango da. Horrela, hala erabakiko balitz, egun udalerri euskaldun izateko baldintza bete ez arren, euren kokapenagatik edo ezaugarriengatik adibidez, babestu beharreko eremuan egotea komenigarritzat joko diren udalerriek ere osatuko lukete lurgune hori; aurrerago “mapa bat indarberritzean aurreratzeko” puntuan itzuliko gara gai honetara.

Edozein kasutan, lurgune euskaldunean, tipologia ezberdineko udalerriak izango ditugula aurreikus daiteke: arnasgune beteetatik hasi eta euskararen pisua nabarmen ahulagoa izango dutenetara. Esan bezala, prozesuan erabaki beharko dira alderdi hauek. Oraingoz, hortaz, zonalderik euskaldunenak bilduko dituen, baina langa non jarriko den zehaztu gabe arituko gara lurgune euskaldunari buruz.

3. Zergatik esku hartu lurgune euskaldunean

Teoria soziolinguistikoaren alorretik Fishmanen³ irakaspenak Euskal Herrira egokituta argi azaldu du Mikel Zalbidetik euskararentzat arnasmuneek duten garrantzia⁴ dentsitate handiko lurguneari eustea eta, ahal bada, hedatzea, hil ala bizikoa da gurean ere hitun komunitate gutxituak aurrera egingo badu. Azken urteotan ordea, atzeraka egiten ari da eremu hori eta egungo joerek jarraituz gero desagertzera joko du hurrengo urteetan.

Arnasmuneak galduz gero, euskararen egoera orokorrak okerrera egingo luke nabarmen; besteak beste, lurralde trinkoenaren galerak eskutik ekarriko lukeelako funtsezko beste zenbait aldagai soziolinguistikoetan ere atzera egitea, hala nola, nagusitasunezko hitunen multzoan, erabilera trinkoa duten hitunen multzoan eta transmisio betea jasotzen duten haurren multzoan. Lurgune euskaldunena ahultzeak atzerakada argia ekarriko luke Euskal Herriko egoera soziolinguistiko orokorrean, euskara heriotzatik gertu dauden komunitateetara gehiago hurbilduz. Horixe da lurralde estrategia bat abian jartzeko funtsezko arrazoia: arnasmuneen ahultzea saihestea eta indartze bidean jartzea lehen mailako helburua izan behar du hurrengo urteotan.

Horrez gain, badira beste bi arrazoi gehigarri garrantzitsu bide honi ekiteko. Batetik, lurraldean ematen diren dinamika soziolinguistikoak aintzat hartzeak onurak ekarriko lituzke indarberritze prozesuan. Ezaugarri soziolinguistiko ezberdinak dituzten eta elkar eraginean dauden lurralde-eremu interkonektatuen batura da egungo Euskal Herria. Lurralde eremu euskaldunagoek euskalduntzearen aldeko eragina daukate gainerakoengan; lurralde ez hain euskaldunek, erdararen aldekoa. Eragin hori indartsua da kuantitatiboki, berriki egin diren ikerketek erakutsi duten bezala⁵. Berez, lurralde-mota bakoitzak duen pisuaren ondorioz (eta baita botere egitura orokorren ondorioz) handiagoa da eremu ez hain euskaldunetan eragin “erdaltzalea” eremu euskaldunagoen euskara indartzearen aldeko eragina baino. Edozelan ere, alde bikoa da eragina.

3 Fishman, J. A. (1991). *Reversing Language Shift: Theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*. *Multilingual Matters*.

4 Zalbide, M. (2019). *Arnasmuneak. Etorkizuneko erronkak*. Bat: Soziolinguistika Aldizkaria, 110, 11-78.

5 Asier Basurto eta Iñaki Lurrebaso: *Dentsitate ezberdinetako lurralde-eremuen elkarreragina euskararen ahultze eta indarberritze prozesuetan. Arnasmuneak hizkuntza gutxituen biziberritzean* Nazioarteko Konferentzian aurkeztutako lana. 2025-09-16. Laster argitaratzekoa.

Onura argiak ekarriko lituzke hizkuntza politika elkarreragin horren ezagutza zehatzetik abiatzeak. Aldeko korronteak (lurralde euskaldunagoek eragiten duten gainerakoen “euskalduntzea”) gehiago aprobetxatzeko eta ahal den neurrian indartzeko bitartekoak landuz; eta kontrako korronteen eragina ahultzea bilatuz. Azken batean, eraginkorragoa izango da gure ahalegina esku-hartze politikak lurraldeen arteko elkar eraginaren ezagutzaren gainean eraikita, dinamika horien aurrean ezikusiarena eginda baino.

Bigarren arrazoi gehigarria: indarberritze-prozesu orokorra azkartzeko aukera eskaintzen du lurgune euskaldunean indar bereziz eragiteak. Ikerketek diote: azken hamarkadetako euskalduntze-ahaleginak inpaktu ezberdina izan du lurraldean, eta euskaldunagoetan gehiago aurreratu da proportzioan, ez hain euskaldunetan gutxiago. Efizientziari buruzko azterketaren zain, baina erratzeko arrisku handirik gabe, esan dezakegu lurralde euskaldunagoetan egindako ahaleginak nabarmen emankorragoak izan direla lurralde ez hain euskaldunetan egindakoak baino, euskararen erabileran eragindako inpaktuari begiratzen badiogu. Aurrera begira, hortaz, lurgune euskalduna bereziki zaintzeak, euskararen indarberritzean eragin positibo argia izango luke, ez bakarrik eremu horretan dauden udalerrientzat; baita egun hain euskaldunak ez diren eremuentzat ere. Azken batean, eta Euskal Herri mailan pentsatuta, ahalegin zehaztua eginda, gutxiagorekin gehiago aurreratu ahal izatea ez da garrantzirik gabeko argudioa: euskarak adierazle nagusietan egun dituen balio baxuetatik igo beharra dauka, igoera hori azkarren eta errazen nola egin funtsezko auzia da. Lurgune euskaldunean aurreratzeak horretarako bidea eskaintzen du.

6 Iñaki Iurrebaso: “Euskalduntzearen inpaktua, lurraldearen euskalduntasunaren arabera. Euskararen indarberritzerako lurralde-estrategia baterantz”. *Arnasguneak hizkuntza gutxituen biziberritzean* Nazioarteko Konferentzian aurkeztutako lana. 2025-09-17. Laster argitaratzekoa.

4. Oinarrizko estrategia: bost irizpide, mapa bat, hiru norabide

Lurraldean jarduteko bost irizpide orokor

Jarraian, gure ustez Hizkuntza Politikaren oinarrian beharko luketen lurraldeari buruzko irizpide orokor batzuk proposatuko ditugu, hausnarketa bideratzen lagun izan daitezkeelakoan.

Lehen irizpidea: lurralde eremu guzti-guztietan eragin behar da. Orain arte hainbatek uste izan dute eremu euskaldunenetan ez zegoela eragin beharrik, bertan euskarak ez zuelako atzera egiteko arriskurik. Ondorio tamalgarriak izan ditu ikuspegi horretan oinarritutako jardunak (edo jardun ezak). Aurkako ikuspegia besarkatzeko tentaldia ere izan dezake baten batek: indar guztiak lurgune euskaldunean jarri eta gainerako eremuetan eragiteari uztea. Ikuspegi okerra litzateke hori ere: hiltunen hiru laurdenak pasa (% 77,2) erdaren nagusitasun handiko udalerrietan bizi direnez, akats larria litzateke horiek albo batera uztea. Are gehiago, UEMAren proposamenaren eremutik at gelditzen den arren, indarberritze prozesuak aurrera egin dezan, funtsezkoa da eremu horietan aurreratzeko estrategian asmatzea. Azken batean, Euskal Herria geroz eta lurralde interkonektatuagoa da, guztietan eragitea ezinbestekoa da. Ezinbestekoa da indarberritze-ahalegin berria eremu guztietan indartzea eta toki guztietan estrategia egokiak garatzea.

Bigarrena: lurralde batzuen eta besteen egoera soziolinguistikoa ezberdina izanik, esku-hartze-moldeak ere ezberdindua izan beharko du gehienetan. Euskara indartsuago edo ahulago egon, oinarrian errealitate eta dinamika soziolinguistikoa ezberdindua aurkitzen dugu; komeni da eremu mota bakoitzarentzat esku⁵hartze molde egokituak garatzea. Plangintza ezberdinak, lehentasun ezberdinak, diskurtso ezberdinak...

Hirugarrena: azkarrago aurreratzeko eta egokiago eragiteko lagungarria da lurguneei rol ezberdinak aitortzea. Bakoitzari, dagokiona. Zehazki, ingurune euskaldunagoei motor-lidergo-aitzindaritzaren papera dagokie indarberritze prozesuan. Dinamika soziolinguistikoa hori horrela gertatzen da, berez, guk horren arabera esku hartu edo ez: zonalde euskaldunagoek euskara irradiatzen dute gainerakoetara (zonalde erdaldunagoek erdara). Gure esku-hartzean berezko joera hori kontuan hartzeak onurak ekarriko ditu indarberritze prozesuan. Marinelak itsas korranteekin nola, guk ere errazago aurreratuko dugu gure errealitate soziolinguistikoko barruko korranteak ezagututa eta horiek gure alde baliatuta.

Aitzindaritzatza-lidergoa jokatu lezakete eremu euskaldunenek, bertan abiatutako politika aurreratuek eta bertako praktika sozialek gainerakoei noranzkoa erakutsiz. Aipatutako lidergoa ezin da ulertu modu erabatekoan; hiriburuek⁷ eta eskualde-buruek ere beste zentzu batean paper hori jokatu beharko dute. Eragin praktiko eta soziolinguistikoki eraginkor batez ari gara lurgune euskaldunenak jokatu beharreko motor izaeraz ari garenean.

Laugarrena: egin dezaketen ekarpen handiagoagatik, gainerako eremuak “euskalduntzen” duten eraginagatik eta arnasmuneek hizkuntza gutxituaren osasun orokorrerako duten garrantziagatik, arreta berezia eskaini behar zaio lurgune euskaldunenari oro har, eta arnasmuneei batik bat. Horrela, euskalduntze prozesuan funtsezko alderdia izango da euskara nagusi den lurralde eremua zabaltzea (neurritz) eta sendotzea (bere euskalduntasunean). Gaur egungo arnasmuneak babestearekin eta sendotzearekin batera, aktiboki bilatuko da egun arnasmune izaera ez duten udalerrri euskaldunak ere arnasmune izatera pasatzea etorkizun ahalik eta hurbilenean, horrela euskararen nagusitasunezko lurralde-eremua sendotuz eta zabalduz. Gainerako eremuetara euskara irradiatzen duen eguzkiaren neurria eta potentzia handituz. Logika horretan, jarduteari begira, zenbat eta lurralde euskaldunagoa izan, orduan eta ahalegin bereziagoa egitea komeni da eremu hori zaintzeko eta garatzeko.

Bosgarren irizpidea: lurgune euskaldunena (arnasmuneak bereziki) gainerako eremuen euskalduntzerako baliabide eraginkorragoa bihurtu behar da. Lehenik, udalerrri horiek espazio gisa ingurune ez hain euskaldunetako hiztunentzat jokatu duten paperaz ari gara. Euskaraz bizitzea posible dela erakusten duten gune erreferentzialak, eta era berean euskara erabiltzea errazteko baliagarriak. Bigarrenik, inguru euskaldunagoan hazi eta ondoren zonalde ez hain euskaldunetara aldatu diren hiztunek euren bizitoki berrian duten eragina hartu behar da kontuan: hiztun gaitu, aktibo eta ez gutxitan militanteak transferitu dira zonalde euskaldunagoetatik besteetara, eta gune ez hain euskaldunetan dauden eredu horretako hiztunekin batera indar handia izan dira eremu horietarako. Hirugarrenik, eremu euskaldunetan bizitzen jarraitzen duten baina beste zonalde batzuetara ere mugitzen diren hiztunek gainerako eremuetan egiten duten ekarpena hartu behar da aintzat. Aurrera begira, modu askotan gertatzen den irradiazio-lan hori berariaz bilatzea eta bultzatzea ildo emankorra izan daiteke lurralde osoaren euskalduntze ahaleginean. Arnasmuneek berez jokatzen duten paper hori optimizatuz eta aprobeztatuz; ingurune ezberdinetako euskaldunen arteko sinergiak sortuz. Ahalik eta gehien bultzatu behar da arnasmuneeen paper hori, beti ere praktika horrek euren euskalduntasuna eta arnasmune izaera kolokan jartzen ez dituen heinean.

⁷ Aldaketa soziokulturaletan hiriburuek jokatu ohi duten lidergo rola kontuan hartuta, botere politiko-ekonomiko-kultural-sinbolikoaren egoitza gisa duten garrantzia ezagututa, eta askotan ingurune zabalagoko herritarrak biltzen dituzten masa ekitaldiak bertan egiten direla kontuan hartuta, garrantzitsua da hiriburuetan euskarak duen estatusa bermatzea. Adibidez, hiriburuetan dauden eta lurralde osoko euskaldunentzako espazio erreferentzialak direnak zainduz eta indartuz; edo lurralde osora zabaltzen den kultur eta kirol eskaintza hizkuntza irizpide egokiekin egingo direla ziurtatuz. Euskararen alde edo euskaraz egiten diren jardura masibo askok ere, hiriburuetan garatzen jarraitzea dirudi egokiena. Horrez gain, esan beharrik ez dago populazioaren zatirik handiena hiriburu inguruetan bizi dela jakinda, agerikoa dela eremu horietako esku-hartzean asmatzea funtsezko erronka dela indarberritzeak aurrera egin dezan.

Mapa bat indarberritzean aurrera egiteko

Aipatutako irizpideetan oinarrituz eta horiek aplikatzen laguntzeko, **babes eta sustapen bereziko eremu bat** legez zehaztea komeni dela iritzi diogu.⁸ Aurrerago aipatuko dugu berariaz lege marko egokia bilatu beharraren gaia. Lurgune euskaldunari legezko babes sendoagoa ematea bilatuko litzateke, bertan politika aurreratuagoak egitea ahalbidetuz, eremu hori zaintzen eta garatzen lagunduz, ortzi-mugan euskara sozialki nagusi izango den eremua sendotzea eta hedatzea izanik, batetik; eta eremu horrek bere “irradiatze-lana” optimizatzea, bestetik. Azken batean, babes eta sustapen bereziko eremuarekin, lurgune euskalduna babestea eta hedatzea bilatuko litzateke, aldi berean Euskal Herriko udalerri eta eskualdeen arteko hartu-emana eta dinamismoa hizkuntzarentzat mesedegarri izango den moduan garatzea bilatuz.

Gure iritziz, babes eta sustapen eremu horrek lurgune euskalduna zehaztu beharko luke lehenik, bilatuz epe ertain-luzera euskara nagusi izango den **lurralde geografikoki jarraitu, demografikoki ohargarri eta soziolinguistikoki sendoa eraikitzea**. Bestetik, bai gune zabal horretan baita gune horretatik kanpo gelditzen den zonaldean ere, barruan egon daitezkeen tipologia ezberdinak ere zehaztea lagungarria litzateke, lehenago aipatutakoaren bidetik. Mapa osatzeko prozesua, aukera ezberdinak teknikoki landu eta horien artean egokiena adosteko prozesu gisa irudikatzen dugu.

8 Beste aukera bat litzateke lurralde osoa bere baitan hartuko lukeen legezko eremu-sailkapen linguistiko bat lantzea; aukera posibleen balizko onurak eta oztopoak aztertzea beharko lirateke bide egokiena aukeratzeko.

Eragiteko hiru norabide orokor

Lurralde estrategiaren baitan, lurgune euskaldunean eragiteko hiru norabide orokor proposatzen ditugu.

1

Politika integraletara jauzia eman beharra dago. Lurgune euskalduneko prozesu soziolinguistikoak aztertuta, kasu gehienetan, ondorio nabarmenagoak dituzte hizkuntza-politikako sailak ez direnetatik egiten diren politika publikoek euskara sailetatik egiten direnek baino. Duela urte batzuk, lehen urrats gisa toki erakundeen politketan prebentzio ikuspegia txertatzeko urratsa eman zen EAEn, udal legearen bidez. Gainerako eremu administratiboetan ez da oraindik lehen urrats hori bera ere eman. Baina prebentziotik harago, euskararen lurralde osoan baliatu beharko lirateke politika publikoak zeharlerrotasunez lurgune euskaldunaren sendotasun soziolinguistikoa bermatzeko eta euskararen indarberritzea planifikatzeko. Hori horrela izateko alderdi demografikoei, ekonomiari, lurralde antolaketari, harrerari eta herri horiek komunitate jasangarri eta bizi gisa sendotuko dituzten alderdiei kasu egin behar zaie eta horietan eragin egin behar da. Ez da erronka makala.

2

Tradizionalki Hizkuntza Politikak landu izan dituen alderdiei dagokienez (hezikuntza, helduen euskalduntzea, kultura, hedabideak, aisia...) **politika aurreratuak behar dira lurgune euskaldunenerako.** Ikerketa eta ezagutzatik abiatuta, errealitate soziolinguistikoak oinarrian hartuko dituen arau, proiektu zein egitasmo estrategikoak garatu eta martxan jarri behar dira. Lanketa hori araugintzatik zein sustapenetik egin beharko da ezinbestean.

3

Ingurune horietako hiztunen **kontzientzia linguistikoa eta ahalduntzea sendotzea** funtsezko norabidea da. Hiztun komunitate ahaldundu bat izatea, diskurtso eta maila mikroan eragingo duten praktika linguistiko egokiak indartzeko nahitaezkoa ildo da. Urteetan ingurune horietako herritarrek eusle paper garrantzitsua jokatu dute bestelako guneetan, baina hori gaitasunari lotua egon da bereziki. Gaur egun, ordea, eremu euskaldunenetako herritarrek erdal gaitasuna nabarmenki hobea dute oso gaztetatik, eta herritar ahaldunduak izateak baino ez du bermatuko eusle paper hori betetzen jarraitzea. Ahalegina egin beharko da, halaber, lurgune euskalduneneko herritar erdaldunen euskararen aldeko jarrerak indartzen.

5. Lurgune euskaldunenerako lege babesa eta plan integrala

Lurgune euskaldunaren eta arnasmuneen garapenean elkar lotutako eta elkar gurutzatzen diren aldagai askok du eragina. Horri erantzuteko, beraz, hizkuntza-politikaren zeharkakotasuna ezinbestekoa da. Arlo edo sail guztietako politika publikoak blaitu behar ditu euskararen indarberritzearen aldeko lanak, bai eta administrazioko maila guztiak ere (udala, eskualdea, herrialdea, erkidegoa).

Euskararen indarberritzea bilatzen duten politika publikoek, berriz, ezinbestean, aitortu behar diete arnasmuneei eta lurgune euskaldunari euskararen normalizaziorako duten balio estrategikoa. Horrek eragina izan beharko luke, eremu horietan eragiten duten ezein politiketan, bai eta horra bideratuko baliabideetan.

Bide horretan, lurgune euskaldunarentzat eta bereziki arnasmuneentzat euskararen normalizaziorako politika publiko egokiak garatu behar dira. Bai, lege garapenari dagokionez, bai eta baliabideen bidez garatu beharreko sustapenari dagokionez ere.

Horiek esanda eta lehenago azaldutako oinarrietatik abiatu eta zehaztutako norabideetan aurreratzen hasteko, etorkizun ahalik eta hurbilenean bi tresna funtsezko bultzatuko ditu UEMAK.

Batetik, lurgune euskalduna indartzeko, premiazkoa da marko legal egokia garatzea. Egun, judizializatua dagoen eremua izaki, sortu diren eta sor daitezkeen oztopoak gainditzeko legedia behar da. Gune horren garapenak oinarri eta babes legal sendoak eta egokiak eskatzen ditu. Lurgune euskaldun horretan ere tipologiaren arabera egokitutako maila ezberdineko babesa, arnasmuneei babesik handiena emanez.

Bestetik, lurgune euskaldunean aplikatu beharreko politika publikoak definituko dituen plan integral bat bultzatuko du UEMAK, zeregin hori askotariko eta esparru ezberdinetako aditu, aritu eta herritarrekin partekatuz.

Lurgune Euskalduna Sendotzeko Plan Integralak, lurgune euskaldunean euskara indartzea bilatuko du. Planak bere baitan politika, estrategia eta ekintza multzo antolatutako bilduko ditu. Plana gauzatzeko erakunde publiko zein eragile sozialen elkarlana eta parte hartzea bilatuko da, helburua izanik guztiek modu bateratuan eta eraginkorrean jardutea aipatutako helburuen bila.

Lurgune Euskalduna Sendotzeko Plan Integrala nola garatuko den zehaztea ez dagokigu orain, baina diagnostikoa egitea izango da lehen urratsa, lehentasunez zein arlotan eragin behar den erabakiz. Horren ondoren etorriko lirateke helburuak (orokorrak lehenik, zehatzak ondoren) finkatzea, estrategia eta jarduera-ildoak definitzea, jarraipenerako eta ebaluaziorako prozedurak zehaztea eta hori guztia bideratzeko beharko diren lanabesak erabakitzea.

Lurgune Euskalduna Sendotzeko Plan Integrala garatu ahal izateko baldintzak sortzen saiatuko da UEMA, oinarrizko proiektu bat landuz eta baliabideak bilatuz. Lehen fase batean, proiektuaren beharra sozializatzea eta bideragarritasuna ziurtatzea bilatuko du. Aldi berean, egoeraren diagnostikoan eta helburuak zehazten ahaleginduko da, beti ere udalerri euskaldunetako aditu, teknikari, eragile eta arduradunekin lankidetzan.

6. Proposamen ireki bat bidea egiteko

Proposamen hau proposamen irekia da, eta bidea luzea du oraindik egiteko. Eremu bat baino gehiagotan errealitatea aztertu eta ikuspegi zorrotzarekin zehaztu beharko dira estrategia borobiltzeko ertzak.

Adostasun horien bila proposamena lau haizetara zabaltzeko konpromisoa hartzen du UEMAk.



Lurralde Estrategia euskararentzat

[lurgune euskaldunena sendotu,
euskararen indarberritzea hauspotzeko]

2026KO OTSAILA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA